

Bero-beroan

100.000 Wikipedian

EUSKARAZKO WIKIPEDIAN 100.000 artikulua daude dagoeneko. Aldizkari hau argitaratu denerako, zifra hori ere gainditua izango du. 100.000garren artikulua euskarak mendez mende jasan dituen debekuei buruzkoa da. Erdi Arotik hasi eta gaur egunera artekoak bilduta daude, tartean euskal izenei buruzkoak eta hezkuntzan gertatutakoak.



UEMA Eguna Bergaran

UDALERRI Euskaldunen Mankomunitateak ekainaren 4an egingo du UEMA Eguna Gipuzkoako Bergaran. Leloa *Euskarak bar dezan arnas* izango da eta egun osorako ekitaldiak antolatu dituzte. Besteak beste, hitz gurutzatuen binakako txapelketa jokatuko da, eta 12:30ean ekitaldi instituzionala egingo da.

OEEren jardunaldiak

OSASUNGOA Euskalduntzeko Elkartek ekainaren 3an eta 4an Gasteizen egingo ditu XXI. Jardunaldiak. *Ikerkuntza: ezagutzatik ekin-tzara* izeneko jardunaldietan iker-

kuntza hartu dute ardatz, antolatzailen esanetan, “osasun alorrean bizi ditugun hobekuntza guztiak ikerketaren ondorioz sortu direla gauza ukaezina da”.

BAHEA

Jordi Sole i Camardonek Hik Hasi-n esanak: “Lehen Hezkuntzan garrantzitsuena hitz egiteko jarrera da. Eta horretan ari dira. Baina Bigarren Hezkuntzan gurasoek eta irakasleek eredu izateari uzten diote, eta aisialdiak eta komunikabideek hartzen dute lekukoa. Eta hori guztia gaztelaniaz edo ingelesez izaten da. (...). Gauzak horrela, hezkuntzaren soziolinguistika irakasgaiak hizkuntza gutxiaren aldeko jarre-
rak zein diren erakutsiko liguke. Zein jarrera hartu beharko genukeen egoera zehatzetan eta zein diren hizkuntzarekiko jarrera deuseztatzaileak. Ekolinguistikoki zer jarrera eta erabilera diren positiboak eta zer deuseztatzaileak erakutsiko litzateke.”



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.arga.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Hauteskundeetako konpromiso sozialak bete

Azken asteetako hauteskundeetako hitz jarioaren ondoren, egia ordua iritsi da. Ordua iritsi da herritarrei hainbat forotatik jaurtitako promesei erantzuteko. Hasteko, ordua da udaletan gobernatzeko hitz eman dituzten aliantzak bete ditzaten. Gogoan izan behar da, askotan, iragarritako aliantza horiek airetik ateratzen direla praktikan jartzen hasi aurretik. EAeko erkidego hauteskundeetako kasu eskandalagarri horixe pasa zen: PSOEk hitz eman baitzuen sekula ez zuela paktatuko PPrekin Ajuriaenera iristeko, eta gero promesa hori hautsi zuen; horri esker dago Ajuriaenean.

Dena den, orain badago zerbait garrantzitsuagoa, finantza eta ekonomia krisiak familien egoerari eragiten dioten ondorio sozial larriak ekarri baititu. Hego Euskal Herrian 200.000 lagun daude langabezia eta horietatik 82.000 inguruk ez dute diru-laguntzarik jasotzen. Tes-tuinguru horretan, alderdi eta hauteskunde koalizioak ahoa bete promesa aritu dira, krisi ekonomikoa dela-eta, arlo sozialari eta sozioekonomikoari buruzkoak denak ere. Alderdi eskuindarrenak ere langile klasearen defendatzaile moduan “birmoldatu” dira eta bide sozialetik abiatu dira.

Denek dakite herritarrei gehien interesatzen eta arduratzen diena jatekoa eta lana direla. Eta denek hitz eman dute udaletatik, herritarrengan hurbilen dauden erakundeetatik alegia, behar horiei erantzun-go dietela. Promesak egitea erraza da. Orain, hitz emandakoa bete-zea dagokie. Egiaren ordua da!

Juan Mari Arregi

Inaki Irazabalbeitiak sustatu.com-en esanak: “Lan-postua [Balenciaga Museoaren zuzendari postua] bete nahi duen pertsonaren profileen hainbat eskakizun egiten ziren eta horien artean hizkuntzak jakiteari buruzkoak. Gaztelania, frantsesa eta ingelesa ezinbestekoak dira; euskara, ordea meritu.”

Beste behin euskara bigarren mailako, non eta Getarian, non eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta beste euskal erakunde publiko batzuk parte diren eta finantzatzen duten kultur ekimen batean”.

Topaguneak urteko batzarra egin ondoren Berrian esanak: “Mugimenduaren gogoetan landutako lan-ildoei jarraituz, pentsamendua garatzeari eta mugimendu barruan transmisioa lantzeari arreta berezia eskainiko dio federazioak hurrengo hilabeteetan, baita herriz herriko euskara elkarteekin batera lan ildo berriak martxan jartzeari ere”.